



**Mutrikuko udala**

## **BEKA DEIALDIA**

**IZENBURUA:** "Mutrikuko historia Udal Agiritegiko dokumentuen bidez"

---

### **OINARRIAK**

#### **1. Bekaren xede-gaia**

Beka honen helburua, Mutrikuko historiaren garai edo gairen bat aztertzea Udal Agiritegiko dokumentazioa erabiliaz batez ere. Ikerketaren gaia librea da eta kondizio bakarra Udal Agiritegian gordetzen den dokumentazioa izatea ikerketaren oinarri nagusia. Lan honen helburua 2009an, 800. urteurrena ospatzeko argitalpen bat izatea.

#### **2. Hautagaitzak**

Historia gaietan adituak izan beharko dute edo/eta egin beharreko lanaren arloan esperientzia dutela frogatu beharko dute.

Bakarka nahiz taldeka aurkeztu daitezke hautagaiak. Taldeka aurkezten direnean zuzendari bat izendatu beharko dute.

Eusko Ikaskuntzako kide izango dira edo bestela lana hasterako kide izateko eskaera luzatu beharko dute.

Lehentasuna izango dute Mutrikun edo inguruko herrietan erroldaturiko pertsonak.

Lehentasuna izango dute euskaraz burutuko diren ikerketek.

#### **3. Iraupena**

Beka honek 8 hilabeteko iraupena du, proiektu irabazlea aukeratzen den momentutik aurrera.

#### **4. Zuzkidura**

Zenbateko gordina: LAU MILA ZORTZIREHUN euro (4.800 euro).

#### **5. Sortzapenak**

BEKAren sortzapena hiru entregatan egingo da. Lehenengoa lana hasterakoan, bigarrena bekaren erdian, ikerketaren eboluzioari buruzko txostena aurkeztu ondoren eta hirugarrena eta azkena dagokion lana entregatzerakoan, beti ere jatorrizko txostenean agerturiko premisa metodologikoak eta proiektukoak betetzen dituela egiaztatuz gero, Eusko Ikaskuntzaren originalak aurkezteko arauak betez gero, eta Mutrikuko Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren oniritzia jaso ondoren.

BEKAren Titularra Lizentzia baten baldintzek beharturik geratzen da. Inprimaki hori behar bezala beteta, Obrarekin eta BEKAren ondoriozko materialekin batera entregatu beharko da BEKAren amaieran. Betebehar hori ez betetzeak BEKA galtzea ekarriko du eta Eusko Ikaskuntzak arrazoi horregatik BEKAren Titularrari emandako kopuruak itzuli beharko ditu Titular horrek.

## **6. Dokumentazioa**

BEKArene eskaera, hartarako xedaturiko inprimakietan aurkeztu beharko da eta espresuki, gutxienez, ondoko puntuak barne hartu beharko ditu:

- a) Hautagaiaren/hautagaien eskabidea, NANaren fotokopiarekin batera, 1 zenbakidun Inprimakian.
- b) Eskatzailearen/eskatzaileen Curriculum vitae laburra 2 zenbakidun Inprimakian.
- d) Egin beharreko lanaren txosten zehatza 3 zenbakidun Inprimakian, honako hauek adieraziz:
  - erabili beharreko metodologia
  - proiektuaren laburpena, helburuak, gaiaren aurrekoak eta egungo egoera eta lan egitasmoa

Gehienaz ere 10 orriko informazio osagarria gehitu daiteke.

Inprimaki hauek Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan jaso daitezke edo bestela honoko web horri honen bidez eskura daitezke: **[www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org)**

## **7. Dokumentazioa aurkezteko epea**

2008ko apirilaren 15a baino lehen entregatu beharko da aurreko atalean aurreikusiriko dokumentazio guztia Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan (e-maila: [udal@eusko-ikaskuntza.org](mailto:udal@eusko-ikaskuntza.org)), eta horietan erabakiko dira deialdi honekin zerikusia izango duten kontsulta guztiak.

## **8. Epaimahaia**

Eusko Ikaskuntzak eta Mutrikuko Udalak, hautagaien artean erabakiko duen Epaimahaia osatuko dute.

Hautagaiek, Beka eskatze soilagatik uko egiten diete Epaimahaiaren ebazpenaren aurkako mota guztietako egintza judizialei edo estrajudizialei.

Epaimahaiak beka eman gabe utzi ahal izango du, baldin eta bere iritzirako, aurkezturiko proiektuak behar beste baldintzaz eta bermez horniturik ez badaude. Era berean, bigarren proiektu bat hauta dezake ordezkoko gisa, irabazleak bekari uko egingo badio.

Beharrezkoa izanez gero Eusko Ikaskuntzak babes zientifikoa eskainiko dio irabazleari.

## **9. Onuradunen betebeharrak**

9.1. BEKArene onarpena idatziz jakinaraztea hura eman eta hamabost egunen barnean, **Onarpen adierazpena (5 Inprimakia)** delakoaren ale sinatu bat erantsiz.

9.2. Lana Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan entregatuko da, originalak aurkezteko arauak (6. Inprimakia) beteaz.

## **10. Lanen jabetza**

Emaitzen, azterlanen eta materialaren (adierazpen eran: bildumak, sortak, datu-baseak, multimedia, CD-ROM, CD-I, Internet, DVD eta etorkizuneko euskarri eta plataformak) jabetza, ikerketa BEKArekin loturik eta zuzen edo zeharka horren emaitza direnetatik eta/edo harekin egindakoetatik ondorioztatu edo eratorriko diren Jabetza Intelektual eta Industrialeko eskubideak, Eusko Ikaskuntzaren alde besterendurik dagoela ulertuko da, LIZENTZIAN (7. Inprimakia) adierazitakoaren arabera.

**OHAR GARRANTZITSUA.** Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dio eskatzaileari ezen bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela eskaera gestionatzeko eta beka kontrolatzeko, bai eta Eusko Ikaskuntzak plazaratuko dituen berritasun guztiez informatzeko ere. Eskatzaileak baimenduko du bere datu pertsonalen tratamendu automatizatua, bai eta bere datu pertsonalak Eusko Ikaskuntzari zuzenki loturiko erakundearen barnean lagatzea ere. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dio sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoen bidez – [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org) –, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha kalea 48, 20007 Donostia.

ESKATZAILEAK aipatu oinarriekin ados egon beharko du.